



ESKOLATXONEKO ZUBIXA



Denbora asko ez tala periodikuetan irakurri dogunez. Oñatiko herrigune zaharrian bistan geraketan xakun antxiñako bi zubi laister botatekotan dira betiko. Zubixok Eskolatxonekoa eta Zubibarrikua ditzuzue. Lehenenguari **Motxonenuka** be esaten xakon garai batian eta bigarrena **Tetuan** edo **Makaleneko** zubi lez ezagutu dogu XX. gizaldixan, nahiz eta inguru horrek azkenengo hamarkada honetan Zubibarri izena berreskuratu. Bi zubi historikuok eretsi eta barrixak jasoteko arrazoia uraundi-xak sortzen dituen kaltietan ei dago. Begira, arazo hau dala-eta, **KONTZEJUPETIK** aldizkari honen 4. alian zer idatzi geben orain dala zortzi urte:

“Uraundixen arazua geruago eta larrixagua dala eztago ukaketarik eta konponbideren bat billatu biharko xako. Baiña hainbeste mende iraun dauen zubixak botatia, samurrena izan arren, eztoz uste egogixena danik. Gaitzaren zuztarretara jo bihar dogula pentsaiten dot, azkenengo 25 urte honeittan gure Kale-erreakiak aldaketa oso sakonak izan dittuelako: erreka hau, Portalekuk beheara batez be, moztu, desbideratu, kana-

*lizau eta estutu egin da; errekiarenak ziran bazterretan etxiak eta garajiak jaso dira; eta urarentzat berezko igeslekuak ziran ortuak asko urritu dira. Hartara erreka zuzenago eta estuaguan urak abixada haundixagua hartzen dau eta, antxiñako urtenbiderik topaiten eztauenian, bere ertzian edo gainian jasotako eraikuntzak hondaketan dittu. Gogoratu daigun esaera zaharra: **Ehundaka urtietan, ura lehengo bidietan**”.*

En fin, beste urok harrezkero be lehengo bidetik fan dirala emuten dau, erreka inguruetan eraikuntza gehixago jaso da eta zubixok orain traban dagoz. Fotografixa zahar honetan ikusi zeinkie zela eguen paraje hori 1920-1930 aldera: gainian dakon etxabolia ordurako egindda egon arren, garbi agiri da Eskolatxoneko zubixaren egittura klasikua; eta Atzeko kaleko etxeost erreka-tarte horrek, eskumakaldetik behintzat, beste berrogeita hamar bat urtian.

J. E.

Argazkixa Oñatin eguen “Fotografía IRIS” izeneko dendakuak atara eben gerra aurrian eta guri Xabier Zelaiaik itxi dosku.

Jasong
Aguirre Zubizarreta
eskulanak



Ultzezin, 4
Tfnoa.: 649 38 46 37
20560 OÑATI



ELKORO C.B.
KRISTALDEGIA

San Lorentzo, 13
Lazarraga, 3 behea
Tfnoa: 78 24 06 OÑATI

**Ispiluak
Lunak
Beiradurak
Segurtasun-kristalak
Aluminiozko lehio
eta pertsianak
P.V.C.
Poliuretano
CLIMALIT**